



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasua.net

alsasua@alsasua.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

HERRILURRETAKO APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

(NAO 74 zbk, 2001ko ekainak 18, NAO 37 zbk, 2002ko martxoak 25,
NAO 43 zbk, 2008ko apirilak 4 eta NAO 166 zbk, 2017ko abuztuak 29)

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Altsasuko udal mugapeko herrilurretako ondasunen administrazioa, erabilera, zainketa, berreskurapen eta aprobetxamendu egintzak erregulatzen dituzten arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

2. art. Herrilurretako ondasunak herri honetako bizilagun guztiek aprobetxatu eta erabil ditzaketenak dira.

3. art. Herrilurretako ondasunak besterenduezinak, preskribaezinak eta bahitezinak dira eta ez dute beren gain tributurik izanen.

Ez dute aldaketarik jasanen beren izaeran nahiz tratamendu juridikoan, edozein dela ere haiek aprobetxatu edo erabiltzeko era.

4. art. Herrilurretako ondasunen gaineko arauak hauek dira: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta haren erregelamenduzko xedapenak; Abereen Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legea eta hura garatuko duten Erregelamenduak; Nafarroako Foru Zuzenbide Administratiboaren gainerako arauak; herrilurren ordenantza hau eta, bestenaz, Foru Zuzenbide Pribatuaren arauak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 40. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatutakoa deusetan galarazi gabe.

II. TITULUA

Administrazioa eta xedapen egintzak

5. art. Herrilurretako ondasunen gaineko ahalmenak, dela haien erabileraz, dela administrazioaz, dela aprobetxamenduaren araubideaz, dela antolamenduaz den bezainbatean, Altsasuko Udalari dagozkio, ordenantza honetan azaltzen den moduan.

Herrilurretako ondasunen inguruan Altsasuko Udalak hartutako erabakiek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritako kasuetan.

6. art. Lurzati txikiak saldu edo trukatzeko desfektazioa egin aitzinetik Nafarroako Gobernuak haien onura publiko edo soziala deklaratu beharko du eta, hori baino lehen, Altsasuko Udalak justifikatu beharko du dagoen asmoa ezin dela beste bide batzuen bitartez lortu, hala nola lagapena eginez edo kargak ezarriz, horietan izanen baitira lehentasunezko aukerak.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Herrilurretako ondasunak desafektatu ondotik beste batzuei lagatzeko edo kargak ezartzeko hartzen diren erabakietan, itzultze klausula sartuko da, egintza horien helburuak edo baldintzak desagertu edo betetzen ez diren kasuetarako.

Halakorik gertatuko balitz, lur horiek Altsasuko Udalaren ondarrera itzuliko lirateke herrilurretako ondasun gisa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 140. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

III. TITULUA

Herrilurretako ondasunak zaindu eta berreskuratzea

7. art. Altsasuko Udala herrilurretako ondasunak zaindu, defendatu, berreskuratu eta hobetzen ahaleginduko da, eta kontra eginen die horientzat kaltegarri izan daitekeen edozein pribatizazio saiori edo bestelako ekintzari.

8. art. Altsasuko Udalak noiznahi berreskuratzen ahalko du herrilurretako ondasunen jabetza, aldeztatik legelariaren txostena ikusi eta interesatuari entzutea emanda. Ekintza zibilak sustatuko dira, herrilurretako ondasunak berreskuratu eta defendatzeko.

9. art. Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuari Jabetza Erregistroak igortzen dizkion ediktuen berri emanen dio, lursailen inmatrikulazioa edo herrilurrekin mugakide diren lursailen hedadura soberakina dela eta. Udalbatzak hartu beharko du jakinarazpen horien inguruko erabakia.

10. art. Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuaren aldeztatik onespenez berriazkoa beharko du, ondasunak herri ondarrerako berreskuratzearen eskualdaketarik egin nahi izanez gero.

11. art. Altsasuko Udalak administrazio bidea erabiliko du betiere, baimen, kontzesio edo beste edozein kariaz herrilurretako ondasunen gainean sortutako eskubideak eta haiek ekarritako okupazioak iraungitzeko, ahalmen hertsatzaileez baliatuz. Aldeztatik kalteordaina eman ala ez, zuzenbidearen arabera izanen da.

12. art. Altsasuko Udalak, herrilurretako ondasunei buruzko kontratuetan partaide denean, interpretatu egiten ditu eta horiek betetzean sortzen diren zalantzak argituko.

Interpretatzeko erabaki horiek berehala hartuko dute indarra, eta ez dute galaraziko kontratugileek bide juridikzionaletan behar den deklarazioa lortzeko duten eskubidea.

13. art. Altsasuko Udalak herrilurretako ondasunak defendatzeko bidezko diren ekintzak sustatzen ez dituenean, herritarren ekimena posible izanen da zehaztuko den moduan. Ekintza horrek aurrera eginez gero, Altsasuko Udalak itzuli beharko dizkie herritarrei sortutako gastuak.



IV. TITULUA

Herrilurretako ondasunen aprobetxamendua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

14. art. Ordenantza honek arautzen dituen aprobetxamenduak honako hauek dira:

- a) Laborantzako herrilurren aprobetxamendua.
- b) Herrilarreen aprobetxamendua.
- c) Iralekuen aprobetxamendua.
- d) Etxerako egurren aprobetxamendua.
- e) Herrilurretako bestelako aprobetxamenduak.

15. art. Altsasuko Udala herrilurren ekoizpena abian jartzen, hobetzen eta egoki aprobetxatzen ahaleginduko da eta duen izaera sozialarekin bateragarri egingen du.

16. art. Orokorrean, Altsasuko Udalaren herrilurretako aprobetxamenduen onuradun izateko, famili unitateen titularrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adinez nagusia izatea, edo bere kontu bizi den nahiz judizialki gaituta dagoen adin txikikoa izatea.
- b) Biztanleen udal erroldan bizilagun gisa inskribatua egotea 3 urteko antzintasunarekin.
- c) Altsasun urtean bederatzi hilabetez gutxienez egiazki eta jarraian bizitzea.
- d) Altsasuko Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- e) Aziendak Altsasuko Udaleko katastroan inskribaturik edukitzea, nagusiki bazka ekoizten duten herri aprobetxamenduen onuradunentzat.

17. art. Famili unitateko kideak etxe berean bizi diren guztiak izanen dira. Nolanahi ere, famili unitate independentetzat hartuko da guraso jubilatuek osatua, familiakoekin bizi arren, beti ere haien dirusarrerak lanbidearteko gutxieneko soldata baino baxuagoak baldin badira.

II. KAPITULUA

Laborantzako herrilurren aprobetxamendua



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasua.net

alsasua@alsasua.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

18. art. Herrilurren aprobetxamendua zuzenean esleituko zaie famili unitateko titular diren bizilagunei, ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

19.art. 1 Herrilurrez baliatzeko esleipenean, Altsasuko Udalaren irizpideak berdintasuna eta zuzentasuna izanen dira, eta lehentasuna emanen die baldintza hauek betetzen dituzten famili unitateko titular diren bizilagunei:

- a) Famili unitate bakoitzeko dirusarrera apalenak badituzte.
- b) Jabetzan edo beste nolana ezaugarri berdineko lurrik ez badute.
- c) Bestelako herri aprobetxamendurik ez badute.

19. 2. Aitzineko lerroakadak aipatzen dituen irizpideak datu objektiboetan oinarrituko dira, hala nola pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenari dagozkion dirusarrerak, soldata bidezko dirusarrerak, laborantzako lurren edukitzea bai errentan bai beste nolana, landalur, abelazkuntza eta industriako kontribuzioen zergapeko kapitala eta hirilurren gaineko kontribuzioarena, norberaren etxebizitzari dagokiona kenduta, eta gisa bereko beste edozein datu ere bai.

20.art. 1. Aprobetxamendu mota honetarako, Altsasuko Udalak urteko kanon bat ezarriko du azalera unitate bakoitzeko, eta hura urteoro zehaztuko da aurrekontu arruntean.

20. 2. Kanon hori ez da eskualde horretan gisa bereko lurretarako errentamenduaren prezioen ehuneko laurogeita hamar (ehuneko 90) baino gutxiago izanen, herritarren arteko zuzeneko esleipena denean.

20. 3. Herritarren arteko lehentasuneko esleipenaren kasuan, kanon hori Altsasuko Udalak finkatuko du eta gehienez ere izanen da eskualde horretan gisa bereko lurretarako errentamenduaren prezioen ehuneko berrogeita hamar (ehuneko 50).

21. art. Aprobetxamenduaz baliatzeko epea gutxienez ere 8 urtekoa izanen da. Laborantza urteanitzak badira, epe hori landare motaren bizitzaren arabera luzatu ahalko da

Oro har, herrilurrez baliatzeko epea 10 urtekoa izanen da.

22. 1. art. Herrilurrak onuradunek zuzenean eta pertsonalki landu beharko dituzte, eta ezin izanen dute berriz ere errentan eman edo lagatu.

22. 2. Herritar bakoitzari esleitzen zaion laborantzako lurren azalera Altsasuko Udalak finkatuko du, herrilurren erabilgaitasuna eta esleitutako lurren ekoizpen ahalmena kontutan harturik, eta eskatzailearen ustiapen edo premien, eta famili unitatearen egoera ekonomikoaren ariora.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

23. art. Altsasuko Udalak egoki juzgatzen dituen egiaztaketak egin ahalko ditu edozein unetan, laborantza zuzenean eta pertsonalki egiten dela ziurtatzeko.

Lurrak zuzenean eta pertsonalki lantzen ez direla kontsideratuko da:

- a) Nekazaritzako makineria izanik, berari esleitu herrilurrak lantzeko erabiltzen ez duenean.
- b) Altsasuko Udaleko Mendi Batzordearen edo Landazain Zerbitzuaren ustetan, esleitutako lurzatiak zuzen eta pertsonalki lantzen ez dituztenean.
- c) Honako hauei dagozkien egiaztagiria eskatu ondoren, Altsasuko Udalak agindu epean aurkezten ez dituztenean: lurra lantzea, lehengaiak erostea eta produktuak saltzea, berek edo Udalak baimendutako pertsonak eginak.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean nekazaritzako etekinik aitortzen ez duenean, horretara beharturik ez egonik ere.
- e) Landalurren jabeak izanik, hirugarrenei errentan emanak dituztenean.
- f) Haien abereei emateko bazka ekoizten duten herrilurren esleipen hartzaileak izanik, aziendak Nafarroako Nekazaritzako Ustiatuegiaren Erregistrotik ateratzen dituztenean.

24. art. Herrilurrak aprobetxatzen dituzten aziendek ziurtagiri bat behar dute, honakoa egiaztatzen duena: Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Aipatu Foru Legean eta haren Erregelamenduetan zehaztutako baldintza guztiak bete behar dituzte.

25. art. Onuradunek zuzen behar dituzte herrilurrak landu eta aprobetxatu. Esleipena egin baino lehen onartu behar dute aurrekoa eta ondoko baldintzei jarraitu:

- a) Esleitutako lurzatiaren mugak mantentzea.
- b) Nekazaritzako labore eta teknika egokiak erabiltzea, herrilurra hondatu edo eraldatuko ez dutenak. Era berean, aldaketarik gabe utziko dira lurzatiaren dauden eta mugakide diren erreketako ibilguak.
- c) Mugakide diren jabe edo onuradunek izan ditzaketan bide zortasunak begiratu eta mantentzea.
- d) Herrilurra mantendu eta garbitzea, sasiak eta sastrakak sor ez daitezela behar den maiztasunez.
- e) Abeltzaintzako azpiegiturak (uhaskak, siloak, eta abar) edo behin-behineko bestelako instalazioak paratzeko, esleipen-hartzaileak alde aurretik eskatu beharko dio Altsasuko Udalari eta haren baimen berariazkoa lortu.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Baldintza hauek betetzen ez dituenari berehala kenduko dio herrilurraren esleipena Altsasuko Udalak.

26. art. Onuradunek herrilurrak ezin izanen dituzte erabili, Udalaren alde aurreko baimenik gabe, esleipenekoak ez diren beste aprobetxamendu batzuetarako.

27. art. Esleitutako herrilurretan zerrakurak egin beharko ditu onuradunak. Hesiak burdin harizkoak edo bestelakoak izanen dira, betiere lurzoru ez urbanizagarrian lursailak ixtearen gaineko udal ordenantzan agertzen badira.

28. art. Herrilurrak eta jabe pribatua duten lurrak ezin izanen dira batera hesitu.

29. art. Herrilurren aprobetxamendua ezin izanen da trukatu onuradunen artean, interesatuek aitzinetik eskaria egin gabe eta Altsasuko Udalak baimenik ematen ez badu.

30. art. Altsasuko Udalak, onuradunei hiru hilabete lehenago jakinarazita, aprobetxamendu horien esleipenak bertan behera utz ditzake, herrilur horietan zuhaitzen landaketak edo beste hobekuntza batzuk egiteko asmoa baldin badu. Aditzera ematen da, laborantzako lurren aprobetxamendua utzi beharra dagoenean onuradunak ez duela eskubiderik izanen kalteordainik jasotzeko. Hobekuntza horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da alde aurretik.

III. KAPITULUA

Herri larreen aprobetxamendua

31. art. Aprobetxamenduaren ondorioetarako, Altsasuko Udaleko herri larreek ustiapen unitatea osatzen dute beste finka partikularrekin batera, antzinako ohitura, edo lege nahiz hitzarmenari jarraikiz. Herri larreen aprobetxamendurako honako eremuak ezarri dira:

a) Santa Luzia alderdiko eremua.

b) Larrasal alderdiko eremua.

c) Dermau alderdiko eremua.

d) Bestelako eremu batzuk.

Altsasuko Udalak eremu horiek zatitu ahalko ditu, egoki juzgatzen dituen azpitaldetan.

32. art. Herri larreen aprobetxamendua ordenantza honen 16. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen famili unitateko bizilagun titularrei esleituko zaie.

33. art. Herri larreak esleitzerakoan, Altsasuko Udalak irizpide sozialak ibiliko ditu eta diru aldetik apalen diren famili unitateei lehentasuna emanen die. Halaber, lehentasuna izanen dute



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

jardueran dauden abeltzainek, abeltzaintza jarduera nagusia badute eta Nekazaritzako Gizarte Segurantzako araubide berezian sartuta badaude, eta ustiategiak lehentasunezkoak badira, Nafarroako Nekazaritza Ustiategiei buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legearen II. Tituluaren 9, 10, 11, 12 eta 13. artikuluen arabera.

34. art. Aitzineko artikuluan aipatzen diren famili unitateen maila ekonomikoak zehazteko, Altsasuko Udalak irizpide objektiboak ibiliko ditu, ordenantza honen 19. artikulua ezarri bezala.

35. art. Herri larreen aprobetxamendua zuzenean eta pertsonalki egingen da, eta ez da baimenik emanen beste batzuei errentan eman edo lagatzeko. Hori horrela, famili unitateko titularrek azia Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritza Ustiategien Erregistrotik ateratzen dutenean, herri larreak ez direla zuzenean erabiltzen ulertuko du Altsasuko Udalak. (Soberazko ekoizpena saltzetik sortutako dirusarreraren ehuneko 50 Udalera itzuliko dira). Halaber, herri larreen aprobetxamendua onuradunaren azia zuzenean elikatzeke erabili beharko da. Onuradunak ezin izanen du saldu herrilurren aprobetxamendutik sortutako belar berde, ontzeko edo siloan sartzekorik.

36. art. Herri larreak aprobetxatzen dituzten Azienden Osasun Babesari buruzko maiatzaren 4ko 5/1984 Foru Legean galdatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen osasun ziurtagiria beharko du herri larreak erabiltzen dituen aziak. Aipatu Legean eta bere Erregelamenduetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu aziak.

37. art. Debekatua dago ahuntz-azia larratzea. Hazkuntza estensiboko txerri-aziendaren kasuan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren alde aurretiko baimeraren menpe egonen da, Aziendaren Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legearen 30.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

38. art. Ordenantza honen 31. artikuluan aipatutako larre eremu bakoitzera bota daitezkeen aziadaburu kopurua zehazteko, Altsasuko Udalak honelako baliokidetasunak paratuko ditu azia mota ezberdinen artean:

a) Behi-abelburu larri bakoitzeko, 3 zaldi-abelburu larri.

b) Behi-abelburu larri bakoitzeko, 10 ardi-abelburu larri.

c) Behi-abelburu larri bakoitzeko, 5 txerri-abelburu larri.

39. art. Altsasuko Udalak, larratze garaiei eta bazkatzera bota daitezkeen aziadaburu kopuruari dagokienez, aske uzten du herri larren erabilpena, kontuan harturik izan daitezkeen azia mota ezberdinak nola larreak eta abeltzaintzako ustiategiak kudeatzeko sistema ezberdinak. Hala eta guztiz ere, Altsasuko Udalak ordenantza honen 25. artikulua betea izan dadin ahaleginduko da.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

40. art. Aurreko artikuluan azaldutakoa gora behera, Altsasuko Udalak, herrilurreen zainketari eta erabilpen egokiari begiratzeko, beretzat gorde du herri larren erabilpenean esku hartzeko ahalmena, hala larratze garaiei, nola bazkatzera bota daitekeen aziendaburu kopuruari nola herrilurrak ukitzen dituen gainerako edozein alderdiri dagokienean. Esku hartze horrek Udalbatzaren erabakia beharko du.

41. art. Larreen onuradunek azalera unitateko ordaindu beharreko kanona urtean-urtean finkatuko du Altsasuko Udalak bere ordenantza fiskaletan eta aurrekontu arruntean. Kanon hori herrilurren balio errearen ehuneko 80tik 90era bitarte izanen da eta esleitzeko prezioa urtean-urtean berrikusiko da bizitzaren kostuak izandako aldaketari egokitzeko, Nafarroako Nekazaritzako Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera (Nafarroako nekazaritzako K.P.I.).

42. art. Altsasuko Udalak larre guztietatik bosten bat gordeko du urtero esleitzeko, onuradun gehiago izan liteke eta.

43. art. Altsasuko Udalak, onuradunei hiru hilabete lehenago jakinarazita, aprobetxamendu horien esleipenak bertan behera utz ditzake, herrilur horietan arbolen landaketak edo beste hobekuntza batzuk egiteko asmoa baldin bada. Hobekuntza horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da aldezturik.

IV. KAPITULUA

Iralekuen aprobetxamendua

44. art. Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 173. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Altsasuko Udalak ez die aurrerantzean iralekuen aprobetxamendurik emanen herritarrei.

45. art. 1. Egun iralekuen kontzesioak dituzten herritarrek beren horretan segituko dute, zuzenean eta pertsonalki ustiatzen badituzte eta abeltzaintzako beren ustiatzietarako erabiltzen badituzte; hori hala izanik ere, iralekuen onuradunek ezin izanen dute iralekurik itxi, ezta iratzearen aprobetxamendua ez den beste erabilera baterako erabili ere.

45.art. 2. Horretarako, iralekuak baliatzen dituzten herritarrek aprobetxamendua eskatzeko eskabidea aurkeztuko diote Altsasuko Udalari, ordenantza hauek indarra hartu eta hilabeteko epean, egun baliatzen dituzten iralekuak zein alderditan dauden eta zenbateko zabalera duten adieraziz. Altsasuko Udalak iralekuen aprobetxamenduak berresteko erabakia hartuko du honako kasuetan: onuradunek, 16. artikuluan ezarri balditzak betetzeaz gain, artikuluko honen aurreko lerrokan xedatutakoa egiaztatzen badute. Nolanahi ere, Udalak badu ahalmena kokalekua aldatzeko edo iralekuen zabalera murrizteko, beti ere horretarako arrazoirik baldin bada.

45. art. 3. Herritarrek egun baliatzen dituzten iralekuen aprobetxamenduei dagokienez, bai onuradunaren eskaera bai Altsasuko Udalaren berrespena hamar urtetik behin berritu beharko dira.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

46. art. Herrilurreko iralekuen aprobetxamenduen lehenengo nahiz hurrengo berrespenak onesterakoan, Altsasuko Udalak onuraduna aldatzeko baimena eman dezake, betiere onuradun berriak aurreko artikuluan zehaztu baldintzak betetzen baditu eta legezko agiriaren bidez egiaztatzen badu bera dela hartu nahi duen iralekuaren aprobetxamenduari atxikitako abeltzaintzako ustiategiaren titularra.

47. art. Iralekuak zuzenean eta pertsonalki ustiatuko dira, eta debeku da beste batzuei errentan ematea edo lagatzea.

48. art. Altsasuko Udalak, onuradunei hiru hilabete lehenago jakinarazita, aprobetxamendu horien esleipenak bertan behera utz ditzake, herrilur horietan arbolen landaketak edo beste hobekuntza batzuk egiteko asmoa baldin badu. Aditzera ematen da, iralekuen aprobetxamendua utzi beharra dagoenean onuradunak ez duela eskubiderik izanen kalteordainik jasotzeko. Hobekuntza horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da aldez aurretik.

49. art. Altsasuko Udalak iraleku guztien erregistrorako liburu bat izanen du, onduradunen izenak, datu pertsonalak eta aldaketak jasotzeko.

50. art. Aprobetxamenduaren titularrak eskubide guztiak galduko ditu, eta hortaz, iralekua Udalerriaren eskuetara itzuliko da, honako kasuotan:

a) Ordenantza honetako 16. artikuluan ezarri baldintzak ez betetzeagatik.

b) Iralekua bi urte jarraian egiazki ez ustiatzeagatik.

c) Ustiapena saldu edo lagatzeagatik.

d) Kanona ez ordaintzeagatik.

e) Altsasuko Udala, udal landazainen txostena ikusita, ohartzen bada iralekuaren ekoizpena nabarmenki txikitu edo urritu dela, aprobetxamendua behar bezala ez egiteagatik iratzez besteko landarez, hala nola otez edo bestelako sasiz, bete delako.

51. art. Altsasuko Udalak urtero finkatuko du, ordenantza fiskaletan eta aurrekontu arruntean, ordaindu beharreko kanona, ustiatuko den iralekuaren azaleraren arabera.

V. KAPITULUA

Etxerako egurraren aprobetxamendua

52. artikulua. Mendian aski izan eta Nafarroako Gobernuak baimendu eta Basogintzako Administrazioak markatu ondoren, Altsasuko Udalak epaitzak banatuko dizkie ordenantza honen 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili unitateei.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

53. artikulua. Altsasuko Udalak urtero finkatuko du familia unitateei esleitu beharreko epaitzen bolumena, mendian dagoen egurraren arabera. Noizbait beharrezkoa baldin bada eten egingen da aprobetxamendu hori, Udalak egoki iruditzen zaion denborarako eten ere.

54. artikulua. Epaitzak zuzenean erabili beharko dira eta onuradunak ezin izanen ditu saldu. Onuradunen batek epaitza osorik edo partez saldu duela egiaztatzen bada, Udalak behar diren zehapen neurriak hartuko ditu.

55. artikulua. Altsasuko Udalak finkatuko du etxerako egurra aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko kanona, epaitzak markatzea, bideak konpontzea eta lanak ekartzen dituen beste gastu batzuk kontuan hartuta, betiere behar bezala justifikatzen badira eta zuzenean epaitzei egozten ahal bazaizkie.

56.1. artikulua. Zozketa publikoaren bidez esleituko dira epaitzak. Esleipen prozedurari dagokionez, Udalaren osoko bilkuraren erabakiaren ondotik eta iragarki oholaren eta Alkatetzaren Bandoaren bidez ediktuak argitaratuta, 15 eguneko epea irekiko da eskubidea dutela uste dutenek etxerako egurraren aprobetxamendurako eskabidea aurkez dezaten. Aurretik, azken urteko epaitzen aprobetxamendua berrikusiko da, eta behar diren neurriak hartuko dira arautegia hautsi dela ikusiz gero.

2. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, zozketa egiteko eguna ezarriko da; Udalaren iragarki oholan eta Alkatetzaren Bandoaren bidez argiratuko da, eta eskatzaileei zuzenean jakinaraziko zaie.

57. artikulua. 1. Zozketa egin ondoko hiru hilabeteko epean bildu beharko dira epaitzak. Udalak, klimatologia dela eta, badu eskubidea epe hori aldatzeko, baita egur loteak entregatzeko eguna eta egokiak iruditzen zaizkion beste aldaketa batzuk egiteko ere. Epealdi hori iraganik, loteak aztertuko dira.

2. Onuradunak behartuta daude ezarritako epeak betetzera, egurra bildu ondotik hondarrak bildu eta pilatzera. Hondar horiek ezin izanen dira pilatu ez bideetan, ez mendi pistetan, ez eta oztopo izan daitezkeen lekuetan ere. Betiere Udalak ematen dituzten jarraibideei kasu egingen zaie. Jarraibideak betetzen ez badira, behar diren zehapen neurriak hartzeko aukera izanen du Udalak.

3. Artikulu honetan ezarritakoa betetzen ez dutenei urtebetez ukatuko zaie aprobetxamendu honen kontzesioa, eta %100eko errekarua izanen dute kanonean.

58. artikulua. Lotean adierazitako zuhaitz guztiak aprobetxatuko dira. Lotea behar bezala aprobetxatzeko, markatuta ez dagoen zuhaitzen bat bota behar bada, Basogintzako Administrazioari eta Udaleko basozainei egingen zaie kontsulta. Udalaren adostasuna beharko da, idatzizkoa betiere. Bestela, behar diren zehapen neurriak hartu ahalko ditu Udalak.

59. artikulua. Ez da baimenik emanen haizeak botatuko zuhaitz ihartu edo eraitsien egurra aprobetxatzeko, Udalak jakinarazpen berariazkorik eman ezean (Basogintzako



Administrazioaren eta Basoen Udal Batzordearen aldeko txostena beharko da aldez aurretik).

60. artikulua. Guztiz debekatua dago zaborra, bidoiak eta edozein hondakin mendian uztea. Arau hori hautsiz gero, Udalak edo bestelako entitate eskudunek behar diren zehapenak edo ekintza judizialak bideratuko dituzte.

VI. KAPITULUA

Herri ondasunen beste aprobetxamendu batzuk

61. art. Ehiza aprobetxamendua, ehiza barrutiak herrilurrak sartuz eratu badira, Nafarroako Parlamentuaren 1981-3-17ko Arauan eta haren osagarri diren xedapenetan ezarritakoari segituz arautuko da.

62. art. Ondareko uren kontzesioa, herrilurren okupazioa, herrilurretan harrobiak ustiatzea eta herrilurretan egin nahi den beste edozein aprobetxamendu edo hobekuntza, kasu bakoitzerako Altsasuko Udalak prestatzen dituen baldintza pleguek zuzenduko dituzte. Horrez gainera, beharrezkoa izanen da jendaurrean paratzea 15 egunez gutxienez eta Nafarroako Gobernuak onestea.

62. bis art. Erlategi-ustiapenari dagokionez, herri-lurretan erlauntzak jartzeko baimena ematen ahalko da, eta aipatu baimena irmoa izan dadin Nafarroako Gobernuaren Herri-lurren Atalaren aldeko txostena beharrezkoa izanen da. Baimena ematen ahalko zaie erlategi-ustiapen bat martxan jarri nahi edo dagoeneko halako bat duten pertsoneri, bertute ordenantza honen 16. artikuluan jasotako baldintzak betez gero. Erlategi-ustiapenaren jabe direnek eskaerarekin batera aurkeztuko dute ustiatzea erregistratua dagoelako egiaztagiria eta behar den osasun dokumentazioa.

Baimena eskuratzen ahalko dute autokontsumorako diren erlategi-ustiapenek. Alegia, erlauntzetatik eskuratzen diren produktuak soilik etxeko kontsumorako direnean. Ustiatzea hauetan ezin izanen dira 15 erlauntz baino gehiago jarri.

Erlategi-ustiapenek baimena jaso dezaten ezinbestean bete beharko dute indarreko legeria, eta, zehazki, Erlategiak antolatzeko arauak ezartzen dituen otsailaren 22ko 209/2002 Errege Dekretua (2002ko 62. Estatuko Aldizkari ofiziala, martxoaren 13koa, edo haren ordezkari edo osagarri etortzen diren xedapenetan ezarritakoak.

Zaindu beharreko tartea dela eta, irizpide orokor gisa 209/2002 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ("Erlategi-ustiapenen gutxienerako baldintzak") jasotakoak izanen dira. Altsasura etorrita, honakoak:

Establezimendu kolektibo publikoak, eta hirigune eta biziguneak: 400 metro.

Bizilekuak diren landa eremuko etxebizitzak eta abeltzaintzako instalazioak: 100 metro.

Errepide nazionalak: 200 metro. Eskualdeko errepideak: 50 metro.

Auzobideak: 25 metro.

Mendiko pistak: erlauntzak alboetan, pasabidea oztopatu gabe eta 5 metrora jarriko dira.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Seinalizazioa dela eta, erlauntz bakoitza identifikatu beharko da, ikusteko moduko tokian eta irakurtzeko maneran, marka ezabaezin baten bidez; zer ustiategitakoa den, harexeri esleituriko kodea agertuko da bertan. Oro- bat, ohartarazi beharko da, ikusteko moduko lekuan eta erlategitik hurbil, erleak badirela. Ohartarazpena ele bitan egingen da. Ohartarazpen hori beharrezkoa izanen da kasu guztietan, baita finka hesiturik eta erlauntzak hesitik gutxienez 25 metrora daudenean ere.

Animaliak babesteko neurriak. Ustiategiaren titularrak zaindu behar du erleen premia fisiologikoen asetzea era haien portaera, haien osasun egoera eta ongizatea faboratzeko. Titularrak betebeharrak hauek ez dituela betetzen ondorioztatuko da, erlauntza abandonatu gisa sailkatzen denean otsailaren 22ko 209/2002 Errege Dekretuko 2.e artikuluari jarraikiz. Kasu horietan, ustiategiaren titularrak erlauntzak kendu beharko ditu.

Erlauntzak jartzeko baimena eskatzeko interesa duen horrek, kokaleku zehatza eta metroak adierazi beharko ditu. Edonola ere, behin betiko kokalekua eta metroak Udalak ezarriko ditu. Erlauntzen kokalekuak ez du alde aurretik esleitutako beste aprobetxamenduen kontra joko edo horiekin gatazkarik sortuko.

Eskaerarekin batera aurkeztuko dira ustiategia erregistratua dagoelako egiaztagiria eta behar den osasun dokumentazioa. Abian ez dauden usti- apenetan, lursailaren esleipenari lotuta dagoela dioen zinpeko aitorpena, eta goian adierazitako dokumentazioa 3 hilabeteko epean aurkeztuko duela, Udalak adostutako okupazioari Nafarroako Gobernuak baimena ematen dionetik hasita. Behin osoko bilkurak erlauntzak jartzeko baimena hasiera batean onetsi ondoren, herri-lurrak okupatzeko espedientea tramitatuko da Nafarroako Gobernuaren Herri-lurren Atalean.

Baimena ez da behin betikoa izanen Herri-lurren Atalaren aldeko txostena izan ezean. Udalak urtero finkatuko du aprobetxamendu honengatik ordaindu beharreko kanonaren zenbatekoa, urteko tasa eta prezio publikoak ezartzeko ordenantza fiskalen tarifak onesten dituelarik.

Erlategi-ustiapenaren titularrak ordenantza honetan edo aplikatze- koa den legerian jasotako arauak bete ezean, erlauntzak berehala kendu beharko ditu, eta/edo zigorra jasoko du.

VII. KAPITULUA

Herri ondasunen hobekuntzak

63. art. 1. Altsasuko Udalak indarririk gabe uzten ahal ditu aprobetxamenduen esleipenak, lur horiek honako xedea baldin badute:

a) Herrilurren gaineko kargak kentzea.

b) Herrilurra hobetzea.

c) Gizarterako proiektuak egitea, inguruabar pertsonalak, familiarrak edo sozialak direla medio beharrean daudela justifikatzen duten herritarrei laguntzeko.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasua.net

alsasua@alsasua.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

63.cu8.2. Proiektu hauek Udalak nahiz interesaturik dauden herritarrek sustatzen ahal dituzte eta lehentasuna izanen dute.

63. 3. Hauxe da kasu horietan jarraitu beharreko prozedura:

a) Altsasuko Udalaren erabakia, proiektua eta ukitutako herrilurren aprobetxamendua arautuko duen erregelamendua onesten dituen.

b) Hilabeteko epean jendaurrean jartzea eta Udalaren erabakia, aurkeztu diren alegazioei buruz.

c) Nafarroako Gobernuaren behin betiko onespena.

d) Nafarroako Gobernuaren onespentak indarririk gabe utziko ditu ukitutako herrilurretan diren esleipenak, eta titularrei sorrarazten zaizkien kalte eta galerak, bai eta lurretan eginak dituzten hobekuntzak ere, ordainduko zaizkie.

64. 1 art. Aprobetxamenduaren onuradunak herrilurra hobetzeko egiten dituen proiektuak Altsasuko Udaltzako onetsi beharko ditu.

64. 2 art.-Herri larreen mantentze eta hobetzea sustatzeko asmoz, Altsasuko Udalak diruz lagunduko ditu herri larreetako lursailen abeltzain esleipendunek lurtzati horietan urtero eginiko garbitze, ongarritze eta mantentze lanak. Diru laguntza jaso nahi duten abeltzainek Udalari eskatu beharko diote idatziz, hobekuntzak gauzatu diren urteko bigarren sei hilabetean, eskabidearekin batera kontzeptu horretan izaniko gastuen egiaztagiriak aurkeztuz. Gobernu batzordeak, hobekuntzak egin izana egiaztatzeke udaleko baso langileen txostena erantsirik izanen duen eskabide espediente ikusirik, diru laguntza emateko erabakia hartu ahal izanen du. Diru laguntzaren zenbatekoa ezin da dagokion herri lursailaren maizterrak ordaindu behar duen urteko kanonarena baino handiagoa izan. Hobekuntza horiek egiteko, garrantzi gutxikoak eta onuragarriak direnez, ez da beharrezkoa izanen Udalari jakinaraztea.

65. art. Herrilurretan luberriak ateratzeko alde aurretik Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da.

VIII. KAPITULUA

Herritarrek luberriak ateratzea herrilurretan

66. art. Herrilurretan herritarrek ez dituzte luberriak ateratzen ahal, lehenago Altsasuko Udalaren baimenik izan gabe.

66 BIS. art. Herritar interesatuek segitu beharreko prozedura honako hau da:

a) Interesatuak eskabidea aurkeztuko dio Altsasuko Udalari, herrilurrean luberria ateratzeko baimena eskatzeko eta lur horiek zertan erabiliko dituen azaltzeko, eta eskabidearekin batean 65. artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

b) Udalbatzak erabakia hartuko du, luberria ateratzeari onespena edo ezetza emateko.

c) Erabakia Nafarroako Gobernuari igorriko zaio behin betiko onespena eman dezan.

67. art. Luberriak ateratzeko aprobetxamendua arautuko duten baldintzen plegua Altsasuko Udalbatzak onetsiko du. Aprobetxamenduaren esleipenak 5 urtetik 20 urtera bitarte iraunen du.

68. art. Kasu horietan, Altsasuko Udalak onuradunari kanona gutxitzen ahal dio, esleipen epe osorako nahiz zati baterako, hobekuntza amortizatzeko kontzeptuan. Esleipen epearen gainerakoan, ordenantza honen 20. artikuluan horrelako aprobetxamenduetarako ezarritako kanona ordainduko du.

69. art. Herrilurretan ateratako luberrien laborantza ordenantza honen 18 eta 19. artikuluetan eta 22.etik 30.era, biak barne, bitartekoetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

IX. KAPITULUA Esleipenaren prozedura

70. art. Altsasuko Udalak Herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza hau onesteko erabakia hartu ondotik, 15 eguneko epea irekiko da, iragarki oholean ediktua paratuz, eskubidea dutela uste dutenek herrilurretako aprobetxamenduetatik nahi dituztenak eska ditzaten.

71. art. Eskabideekin batera ondoko agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Altsasun erroldatu izanaren ziurtagiria, gutxienez ere 3 urtetan ziurtagiria luzatu denetik.

b) Zinpeko aitortpena, urtero bederatzi hilabete, bederen, ematen dituela herrian dioena.

c) Famili unitateko kideen zinpeko aitortpena eta famili liburuaren fotokopia konpultsatua edo, kasua bada, Elkartze Zibilen Erregistroarena.

d) Udal kontuhartzaitzaren ziurtagiria, Udal honekin zerga arloko eginbeharrak bete direla dioena.

e) Zinpeko aitortpena eta ziurtagiriak, honako hau egiaztatzen dutenak: Udal honetan eta besteetan beren jabetzakoak dituzten lurren azalera, eta landaketa motak.

f) Zinpeko aitortpena, errentan hartuta edo beste modu batez lantzen dituzten lurak azaltzen dituen.

g) Zinpeko aitortpena eta ziurtagiriak, hirilurreko jabetza egiaztatzen duena, salbu eta bizi ohi den norberaren etxebizitzarena.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

h) Nafarroako Gobernuako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroko ziurtagiria.

i) Teknikari eskudunak luzatutako ziurtagiria, abereen saneamendurako ekitaldiak bete direla dioena, abereen osasunaren gainean indarra duen legeriaren arabera.

j) Famili unitateko kide bakoitzak dituen dirusarreraren ziurtagiria, eta kide bakoitzaren pertsona fisikoen errentaren gaineko aitortpenaren kopia.

Agiri hauek egiaztatzeko, Altsasuko Udalak ahalmena izanen du kasu bakoitzean beharrezkoak iruditzen zaizkion agiri osagarriak eskatzeko.

72. art. Eskabideak ikusirik, Altsasuko Udalak aprobetxamendu mota bakoitzera onartutakoen zerrenda onetsiko du, esleitu beharreko lotea eta tokia ere azalduko dituen. Zerrenda hori behin-behinekoa izanen da.

73. art. Behin-behineko zerrenda Udaleko iragarki oholean paratuko da 15 egun baliouduneko epean, egoki juzgatzen diren alegazioak egin ahal izateko. Alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrendak behin betikoak bihurtuko dira.

74. art. Alegazioak eta zuzendu beharreko akatsak izanez gero, Altsasuko Udalak horiei buruzko ebazpena emanen du eta mota bakoitzeko aprobetxamenduen eta onuradunen behin betiko zerrenda onetsiko, tokia edo lotea ere azalduko dituen.

V. TITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

75. art. Honako hauek dira arau-hauste administratiboak:

a) Erabilpena zuzenean eta pertsonalki ez egitea, edo beste batzuei saltzea herrilurren aprobetxamendutik sortutako belar berde, ontzeko edo siloan sartzekoa

b) Aprobetxamenduen kanonak Udalak finkatutako epeetan ez ordaintzea.

c) Herritarrendako aprobetxamendua nabarmen gaizki edo osorik ez egitea.

d) Herrilurrari adjudikazioko erabilera ez dena ematea.

e) Lurrak lantzea udal esleipenik gabe, nahiz eta landu gabeko lurrak, hots, larre utziak, izan.

f) Laborantza iraunkorrak (frutarbolak, zainzuri- landareak, eta abar) udal baimenik gabe landatzea.

g) Esleipenetan aipatutako epeak ez errespetatzea.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

h) Abereen Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legean eta hura garatzeko Herrilurretan bazkatzen den aziendaren osasuna zaintzeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoa ez betetzea.

i) Hildako animaliak lurperatu gabe abandonatzea.

j) Artzaintzarako aldeak ez errespetatzea.

k) Ordenantza honetan xedatutakoari kontra egiten dion edozein egintza edo ekintza.

76. art. Arau-hauste horiek ondoko zehapenak izanen dituzte:

-a), b), c), d), f), h) eta i) arau-hausteengatik kontzesioa kenduko da, nahiz eta horrek ez duen galarazten Nafarroako Gobernuaren organo eskudunek zehapenak ezartzea, Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta nekazaritzako elikagaien arloetan zehapenak ezartzeko prozedura onesten duen abenduaren 9ko 369/1997 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

-g) arau-haustearengatik lurren edo herrilarreen esleipen-hartzailea izateko eskubidea galduko da.

-Gainontzeko arau-hausteengatik, eragindako kaltearen balioaren halako bost eta hamar bitartean ordainaraztea. Balioa zehazterik ez badago, hamar milatik milioi bat pezeta bitarteko zehapena ezarriko da.